

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

3080

AGINDUA, 2022ko ekainaren 13koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación Hurkoa Fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa.

2022ko martxoaren 24an, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko erregistro telematikoan eskabide bat jaso zen, Fundación Hurkoa Fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko.

Eskabidearekin batera, estatutuen aldaketari buruzko eskritura publikoa aurkeztu zen, zeina 2022ko martxoaren 22an egiletsi baitzen, Donostiako notario Guadalupe Maria Inmaculada Adanez Garciaren aurrean (protokolo-zenbakia: 550).

Eskritura publiko horrekin batera José Ignacio del Pozo Chico jaunak –patronatuko idazkari gisa, eta presidentearen oniritziarekin– 2022ko martxoaren 10ean emandako ziurtagiria aurkeztu zuen. Horretan, 2021eko azaroaren 23an patronatuak egindako bileraren berri eman zuten, non bertaratutakoek aho batez onartu zuten estatutuen 7. artikulua aldatzea, (fundazioaren helburuei buruzkoa), 8. artikulua (jardueri buruzkoa) aldatzea, eta 21. artikuluan q) letra gehitzea, Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa baliatuz laguntzeko legeria zibil eta prozesala aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2021 Legea egokitzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren zerbitzu teknikoek espedientea aztertu dute eta ondoren, ebazpen-proposamena egin dute.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman behar du, agindu bidez, estatutuak aldatzeko espediente honi buruzko ebazpena, honako arau hauetan xedatutakoarekin bat etorritik: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua; eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedientearekin batera, funtsezkotzat jotzen diren dokumentu eta datu guztiak aurkeztu dira. Horrela, bereziki betetzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan eskatutako betekizunak. Gainera, estatutuetan egindako aldaketak bat datoz aplikatzeak diren lege eta erregelamenduetan xedatutakoarekin.

Aipatutako arauak eta aplikatzeak diren gainerako arauak ikusita, hau

2022ko uztailearen 6a, asteazkena

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, agindu honen datarekin, Fundación Hurkoa Fundazioa izeneko fundazioaren 7. artikulua aldatzea, (fundazioaren helburuei buruzkoa), 8. artikulua (jarduerei buruzkoa) aldatzea, eta 21. artikuluan q) letra gehitzea. Fundazioaren patronatuak erabaki zuen aldaketak egitea, 2021eko azaroaren 23an; betiere, 2022ko martxoaren 22an Guadalupe Maria Inmaculada Adanez Garcia Donostiako notarioaren aurrean, egiletsitako eskritura publikoaren zehaztapenekin bat etorriz (protokolo-zenbakia: 550).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari eta haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 13a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.